

kabe miña Nemesi jauparijari, baita Alesander'eri.

Geixo aldi astunak igarota, txai-dean ikusi doguz, Efenteria'tar Gorgoni eta Zabalat'ar Perderika, Bizkaiko aldunak izanak bijok. Zorionak.

Pozik entzun dogu, Txifindulari azkatuta deritzan bazkunakuak gela berezi bat eskatu dautzala, «Sabin-Etxia»ri, eta onek, emon dautsela aiko-maiko barik, Pozik dira gasteok euren gurea lortu daben ezkerero.

OGOÑOPE

**EGILBORTAR JON G. TA SEMIAK**  
AUTONOMIA-24'gn. — ABANDO'n igali edo fruta ta basoko zugatzak, Landa, ta ortu - azizak. Zimaufak; kokuak ilteko gayak, eta abar. Landara-gatzak kentzeko irakaskizunak. Ortu ta baratz-eredubak.

**Mañari.**

*Elizkizunak.*  
Igandez, goiz ta afatsaldez, K'isto Efegiaren opaz elizkizun eder-edefak egin ziran. Amafetako mezan, gure txauburu jaunak, jayari yagokanez, itzaldi edera egin eban.

*Etofiak.*  
—Ereño'tik etofi zan Elordieta'tar Miren andera.

—«Gatzayeta»ko Peli mofoskua, igandez egon zan emen.

*Bagaraaz...*  
«Axe-burdija»ren zaldi bizkofak, aurtan, arin, iraduz, garoyaz negurantz, Afanaitz'ko Olentzijo deritzon landia, lengo astartez edufez zurituta egoala ikusi gendun. Onik aufera otza ugari ixango da. «San Simon eta Juda, negua eldu da».

*Baifro be...*  
Irak eta gaztañak etxeraturikoan, Pirmin asmatzaliak, baifro be bere tramankuluari ekinaldijean bat egingo dautsola uste dogu. Txifingak eta egoak, ondiño obeto atondu biarko dautsozala esan ei-eban eta. Ia ba, aurtengo negualdijean zegozer egiten daben... Bein esi ezkerero, bide-erdijan geratzia, ondo elitzake ixango beintzat...

Entzun dogunez, aliko baten, Eibar'ko Oxanguren argazkilari ospetsuak Permin'en «ardopianoa» efertratuau dau. Olakorik ixaten ba-da, argazki bat EKIN'era be bialduko

da; Beña'tar Pirminek egifiko lana, bertako irakurle guztijak ikusi dagijean be.

*«Ogoñope»ri.*  
Peretzikoeri jazo yakenaz, efime tamaldu nintzan. «Zor zafa, zor txafa» zala-ta, agindurikoa betetutiafen, Irala'ko Andra Mariz bialdu neutsoezan; «Abeletxe»k eta zeuk, azkari on bat egiteko esanaz. Eta ofa, zer jazo dan! ¡Eguno! Bixi banaz, datofen urtian (J. I.) beste ofenbeste edo geyago bialduko dautzudedaz.

Gorantzijak, «Abeletxe» zintsoari, ta «Osane» begikoari.

MAÑARIKO

**Eunak eta soñeko egliak Zea'ar Erupin**

**Cenderia 15 Bilbao**

**Akorda.**

Ganian doguz «Domusantu» eta «arimari» egunak izpafak urteten dabenarako bata, ospatuta eta bestea, ospatu erdijan ixango doguz, Aita Prantzisko lekaide bat egunotan auzotar ixango dogu.

Urteroko autorkuntzak, eleixa, puntziñuak, eta ildegiko jaupak ixango doguz aste onetako egintza nagusijak.

Ofaitiño egun ifunak beti ixaten dauz, baten batek, oraingo aldiko ifunenak Laida'ko Ardantza'tar Peli-xek dauz. Bere senar ona galdu dau, ludiko sasorik gordiñenian.

Eguastentian il-obiratu zan Lemikiz'tar Gergorio itxastar efimiarren gorpuba. Beraz bere seme-alabatxu kutunak biardanez ezagutuzeko itxi dauz, eta bere emaste ixandako Peli-xe, saminaldi ifunenian. Jaunak gura ixan dau, eta gu bere nayan gazoz. Orain otoi, otoi eta otoi.

Gernika'ko Luno'tik etofita geure auzokide dogu Foruria'tar Toma jauparijaren «koñatia». Abade-etxe'ko zeregiñak aufera eruateko etofija-da, eta berton poz-pozik agertuten da.

Igaro dan asteko EKIN'ek 7'gafen ofialdean dakafen oafa irakufita, «top» egin beafa dot. Ainbat efitako izpafak ezin azaldu ixan dauz, batzuk berandu, beste batzuk luzeegi, eta efi batetik bat edo bi artun, da-

bezelako. Neu bigafenak «atrapau» nau, bai... eta oinguetan Akorda'tik laburtutiafen «top» egin biar dot.

O.

**Eliz - Janzi ta urregintza A. Rui-Wamba**

Elizak jasteko biar dan gusfia emen aurkituko dozue ona ta merke  
**Plaza Nueva, 10 Ufutzikiña 14.238 BILBAO**

**Barinaga.**

*Zurumuñua.*  
Emengo gasteak egunokaz ezkontza zaratea badabilela, ta nok daki, oraintxe bear bada gaste mordotxu bat bixi dan arteko lotuko ba dira be; baña nola naiko gauza danik ez uste ixan, bestela ezkondu eta damutu ixango da.

*Esakunak.*  
Onak on dirala, obeak obe. Beti lez asi dira euren bearkunak betetan. Etze'tik etxera alkar ikusi ta agurtuaz senide eta auzokoak arimen alde mesak eta il-otoyak edo efesponsuak stareaz badabiltzaz. Urte askoan olantxe.

*Kirtenak.*  
Oitura gaiztoa, berandu aztua. Auzo onetan zenbat gixon keskar, gauzaonezko negi ta prolarako askoz, jan edan eta jokuetan etxiak ondatu, ostera be ixango dituk asafeak franku.

*Eguraldija baltz.*  
Orain ba zortzi egun edo olan arto, indabak eta azpigafijak batzeko artuko litzakez; ba esanak gudan eta egiñak Jainkoagan dagoz eta ezebez ezin egin onon dala ta onen irauñ bear.

TXEPETX-ORDE

**Muxika.**

*Erijotzak.*  
Aldi laburtxuan gaixorik egonda, Jaungoikuaren besoetan il zan asteazken goixian, Ikurton Deunak eta Doipura Oneskuna artuta gero, Zendaragorta'tar Andoni. (G. B.) Oztegunian ixan ziran bere obiraltze ta eleizkizunak eta ostetza andija eldu zan euretara. Laguntzen dautsegu atsekabian beren sendiko guztia.

Baita juan dan aztian il zan Uruburu'tar Jagoba be; notintza andija

eldu zan beren obiraltze ta eleizkizunetara. (G. B.) Artu begijen gure tamal-agufa beren sendikoak.

*Ezkontzak.*  
Eliz-deyak amaituta aurkitzen da Atzikalende'tar Miren, Luno'ko mutil gazte bategaz. Au dala-ta Miren'ek bere gazte laguner lengo igandian egin eufsen ezkongai-agufa onetarako askari bat emon eutsen, eta sekuleko gozarijakaz emon be. Agur, ba, Miren eta aldi luzerako ixan dautxubela zeuen bixitza bafijori.

Lengo astian ezkondu zan Andrañua'tar Julen Befojalbiz'tar Juste'gaz. Zorionak.

*Jayotza.*  
Onandia'tar Agapito'k eta bere emaztiak alabatxu bafi bategaz geitu dabe euren sendija. Zorionak.

*Artezkari jaanari.*  
Agur Artezkari jauna: Muxika'n idazliak ugari egin dirala ikusifa neu be ofen arlora biurtu nabe. Tokirik ixango ete dozun bildur naz baña tokirik ezpadozu, EKIN ornidute etofiko da; ni bafiz pozik EKIN irakurteko. Agur, ba, Artezkari jauna, zure agindupian gelditzen naz beti Jel-aldez.

EKIN-ZALE (1)

(1) Abegi onez artzen doguz guk idazle guztiak, batez be EKIN-ZALE'ak diranean. Muxika'ko idazleok poliño idazten dozue, baña alkar-artu biar zarie, bestela aste beratan zeuen idazlan bi edo iru artzen doguz-eta. Guk danak argitaldu gura geunkez baña ezin bat baño geyagorik, tokirik ez dogu izaten-eta. *Artezkari.*

**Qñetako ta puntotzko gauzak**  
Ugari, onak eta merke  
EUZKERAZ ITZ EGITEN DA

**Bengoa'tar Matias**

Artekale, 1 eta 7 BILBAO

**Ereño.**

*Ameriketa'ra.*  
Azila'ren lauan urtengo dau Ipar-Amerika'rantz, geure lagun eta abertzale zintzua eta EKIN'en irakurle ona dan Agife'tar Anbortzi'k. Irabazpide onak izan dayezala opa dautsaga eta ainbat lastefen atzera biurtuteko eskafa Jauna'k emon dagiola, gogo eta gorputzeko osasunegaz, eta uste dogu eztala aitzuko emen ikusi dauzan oitura onakaz, eta geugaz.

*Sibilizaziñua zer dan.*  
Ointxe ikusiko dogu. Geu kabernikolatat euki gabezanok, ointxe erakutsiko dauskuba zibilizaziñua zer dan, ba, alkatiek firmaute gijie edo dana dalakua biarko dogu gari spur bat bolu edo efotara eruateko be, eta laster bafiz, geruago ta zibilizaziñua auferago doa ta, aberientzako jatekotan eta azpigafi ebagiten juateko be paseportia biarko dogu, eta gero-gerokuak.

*Emen dira.*  
Aspaldion atzezi aldian ibili diran tenikuok emen dira, eta euron artian tian gure txauburu jauna be, ba lefo oneik idazten diardugun orduan, Paris'en ei-dagoz eta azkenengo artun doguzaa izpafetan diñuenaz, euron juan-etofijak bultiz, automobiler eta aidoplanoz egin ei-dituez, eta ederto egin be.

*¿Etoñiko ete yakuz ba aurtan?*  
Igaro zan urteko Azila'ren ogeta bostian, beti oituten dogun lez, il-otoyek egin genduzan abertzalioek eta il-otoyeta eleizara giñoiezanol iñok gatzik egin eztaiskun edo txapel okefak bidaldu euskubezan, eta aurtan be etorten bayakuz eskartuko doguz.

BIRIXINAGA'TAR JOS' BA

Edonungo eskariak egiten dira. Oyalik onenak. Berebiziko artaziak.

**Eguñola Joskolak**  
Lekeltio'n Ufutzikiña 63 Bermeo'n Ufutzikiña 76

**Legendika (Kanala).**

*Juan-etofijak.*  
«Efamon» untziko lenengo buzkindarija ixan dan Etxebafleta'tar Imanol etxeratu da. Ondo etofija. «Bar-tolo» untzira juan da Ibarzabal'tar Paul mutil gaztia eta «Altuna-mendi» «Sota»ren untzira Kobeaga'tar Joseba. Ondo ibili.

*Deyak.*  
«Domekan abadia eperdiz altarara jafi da». Esakun au, safi ez bada be, urteoro beintzat erabilten dabe legendikar jatofak. Esan gura dau: igandez deyak juan dira. Igaro dan igandian onexenak juan ziran: Itza'tar Marene, Legendika'ko alabia eta Bedarona'tar Purdentzi, Erandio'ko semiarenak. Zorionak.

(17)

**ALDEZKETA - GAYAK**

(APOLOGETIKA - GAYAK)

**KISTAÑA NAZ ¿ZER DALA-TA?**

NABAIZTARA'k atondua.

Jaifalkuna

**Kistar-uskurtza Jaunak bialtsi ta aginduba**

Kistar-uskurtza Jaungoikua'gandikua ba da, Jaun orek bialtsi ta aginduba ixan biar.

Kistar-uskurtza Goiko Jaunagandikua dala, bafiz, argibide askoz erakutsi ta egiziau dafekte. Emen iru argibide azalduko doguz; Josu Kisto'ren jaungoikotasuna ta kistar-uskurtzaren zabalgunidia ta ondoriak.

1.<sup>a</sup> *Josu-Kisto'ren jaungoikotasuna.* Josu-Kisto Jaungoikua da; kistar-uskurtza, bafiz, Josu-Kisto'k azaldu ta zabalduko dogu: orezkero, uskurtz au Jaungoikua'gandikua ixan biar.

Lenago egiztao dogu Josu Kisto Jaungoikua dana, bere bixitiz, erijotz eta ilpizkundia aztertirik. Josu'ren Jaungoikotasun zifneskayak bai dau ofiafi sendorik:

Josu'gan ziara betaturiko antxin - iragarkijak, Josu'k egifiko alatz arigarijak, eta batez be, berbizkunde aintzatsuba.

2.<sup>a</sup> *Zabalkundia.* Kistar-uskurtza gixartian edatu ta zabaltzeko, Jgunaren laguntza bedegaña ixan eben beldubak (apostolubak) eta ikasliak; orezkero, uskurtza bera be Jaungoikuagandikua eben.

Augustin deunak boskarfen eunkiko zifnestegoñai jaurti eutsen bat edo beste ospatsuba afatutia naiko da? Kistar-uskurtza alatz-bidez ala alatz-barik zabaldu da? Bat edo beste. Josu-Kisto'k eta aren ikasliak egifiko alatzak onartu ba dagixubez, kistar-uskurtza Jaungoikua'gandikua dala autortu biarko dozube. Alatzok ukatu ba dagixubez, ostera, alatzik aundijena onartu biarko: kistar-uskurtz-zabalkundia. Ixan be, alatzik aundijena lixake amabi gixon txiro ta etxakiñek kistar-uskurtza ain laster ludi osoz zabaltzta. Uskurtz onen zifneskayak ulerkatxak dira; agintzak, bafiz, zoñotzak; girin okefak ezi ta bezau bialtsa dirakas; agintari gustijak aurka dauz. Eta eragozkunok gora-bera, ludi osoz zabaldu da. Au bai alatzal

3.<sup>a</sup> *Ondoriak.* Kistar-uskurtzak ekari ebezan ondoriak Goiko Jaunagandiko uskurtzak baño elegikezan ekari.

Eromar-gixarte ustel-baru donetasun arigarija sortu eban, gixonak alkar mañe-erazo, ta onoinen gustijak zabaldu ebazan: zuzentasun, neufitasun, apaltasun, garbitasun, ildufa, menpetasun, eruapen, eruki, ta a. Eromataren sori (moral) utsalak alango ale edefik ezeban emoten!

Kistar ziñopaen (martirijen) adore ta kemen aundi-jetzaz, bariz, ¿zer esan? Kistarbatzak lenengo *irureun urtetan* amaika edo amabi unei (miloi) ziñopa ixan ebazan, gixonezko ta anderazko, zar eta gaste, mutiko ta neskato: eta danak oldez jasan eben erijotza, kistar-uskurtzeko zifneskayak ez ukatutiafen, jasan be. Orezkero, Jaungoikua zifnesten daun gixonak kistar-uskurtza onartu bialtsa dau, kistaña ixan bialtsa dau.

**OSTEZKITZAK.** 1.<sup>a</sup> Josu Kisto Jazungoikua danik eztiñoela goizpargiliak, Jon deunak bakarik baño.

*Er.* Jaungoiko-Semia dala diño. bafiz, laurak: ixatezko Semia, gero. Ori argi-argi dago goizparak (ebangelijuak) arduraz ta gogo onez irakuri dauzan edonorentzat.

2.<sup>a</sup> Maomataren uskurtza be urte gitxi-baru luñalde askotara edatu zala.

*Er.* Bai, baña, indaña ta ezpatea lagun edatu zan; eta gixobai ludijon nasai nasai bixi al ixateko axu edo eskuba emoten eufselako.

3.<sup>a</sup> Indutar - uskurtzak, be, *Pakir* edo diralako gixon doniak-eta sortin daruazala.

*Er.* Arein donetasuna ezta osua, kistar deunena lez; eta euren alatzak be eztiña egizko alatzak, lebertasun-egintzak baño.

(Ufengoan geyago)

○○○○○○○○